

## Martxoak 8



**Martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna** ospatzen da, Emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko eta eskubide horiek aldarrikatzeko.

Antigua-Luberri ikastetxeak, Hezkidetza Proiektuaren eskutik, egun hori ospatu nahi du martxoaren 9an zenbait jarduera eginez.

### Martxoak 8: MEME LEHIAKETA

Teknologia berriak, euskara, umorea, sormena eta hezkidetza bateratzeko asmoz, 2 Meme lehiaketa antolatu nahi dugu: bata, DBH mailan ;eta bestea, Batxilergo mailan.

#### 1) Parte-hartze baldintzak

- a) DBH eta Batxilergo maila guztietako ikasleek parte hartu ahal izango dute.
- b) Irudiak **euskarazko testu ORIGINAL labur bat** eramango du.
  - b.1) Irudia originala edo Internetetik ateratakoa izan daiteke.
  - b.2) Testua originala, kopiarik ez da onartuko.
- c) Gaia hau da: NBE-k proposatutako leloa: "Berdintasun belaunaldikoa naiz: Emakumeen eskubideen alde!"

#### 2) Onarpen-irizpideak

- a) **Banakako lanak** izango dira.
- b) 4)b) puntuak azaltzen den **formatuan eta moduan** aurkeztuko dira.
- c) Memeak **originalak** izan behar dira, kopiarik ez dira onartuko.
- d) Irainak, errespetu faltak ez dira onartuko (ez testuan ez irudietan).
- e) **Mezua positiboa izango da.**
- f) Proposatutako **gaiarekin erlazionatuta** egon beharko dira.
- g) Parte-hartzaileak berak hartutako argazki bat erabiltzen badu, ezingo dira beste pertsonak agertu baimenik gabe.

#### 3) Sariak

- a) Maila bakoitzean **2 sari** egongo dira:

■ <i>Irakasleen saria (DBH)</i>	■ <i>Irakasleen saria (Batxi)</i>
■ <i>Ikasleen saria (DBH)</i>	■ <i>Ikasleen saria (Batxi)</i>
- b) **Saria:** liburu 1 + 20 euroko bonua (4. mailako kamiseta/sudadera edo bizkotxoak erosteko)
- c) *Meme batek ezingo du sari bat baino gehiago jaso.*

#### 4) Lan-aurkezpena

- a) Meme-ak bidaltzeko epea 2020ko **martxoaren 2tik 5era**.
- b) Meme-ak Moodle-aren bidez bidaliko dira.
  - **Luberriko webgunean “Meme lehiaketa moodle-ean”** sartu eta instrukzioak jarraitu.
- c) Ikasle batek ezingo du meme bat baino gehiago aurkeztu.

#### 5) Erakusketa.

- a) **Martxoaren 9an** onartutako memeak ikastetxean jarriko dira jendeak ikusi eta bozkatu ahal izateko.
  - Beheko solairuan: DBHko memeak
  - Goiko solairuan: Batxilergoko memeak
- b) Meme bakoitzak **zenbaki** bat izango du.

#### 6) Bozketa

- a) Bozkatzeko epea **martxoaren 9tik 11ra**.
- b) **Ikasleen bozketa**: geletan egongo den zerrendan, ikasle bakoitzak gustuko meme-a apuntatuko du, meme horrek duen zenbakia aipatuz.
  - DBHko ikasleek DBHkoen meme bat aukeratu behar dute.
  - Batxilergoko ikasleek Batxikoen meme bat aukeratu behar dute.
- c) **Irakasleen bozketa**: irakasle-gelan egongo den zerrendan, irakasle bakoitzak gustuko meme-a apuntatuko du, meme horrek duen zenbakia aipatuz.
  - DBHko meme bat aukeratu behar dute.
  - Batxilergoko meme bat aukeratu behar dute.

#### 7) Sari-banaketa

- a) **Martxoaren 13an 1. jolasaldian** sariak iragarriko dira.
- b) Meme saridunak ikastetxearen **webgunean** argitaratuko dira.

Orrialde hauetan edo beste antzeko batzuetan zure berezko meme-a sor dezakezu

<https://www.memecenter.com/>

<https://www.generadormemes.com/>

<http://quebolu.com/>

<https://www.iloveimg.com/es/crear-meme>

<http://www.imagechef.com/ic/es/meme-maker/>

<http://generadordememesonline.com/create>

